

Nobedadeak 2022ko zerga-araudia

ATARIKO OHARRA

Testu hau dibulgaziokoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Bertan, 2022ko zerga-araudiko nobedadeak jasotzen dira.

- [1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena \(2022-03-14 Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA\).](#)
- [1/2022 Foru Dekretu-Araua, apirilaren 5ekoa, eguneko krisi energetikoa, prezioen gorakada eta Ukrainaren inbasioa izaten ari diren inpaktu ekonomikoa arintzeko premiazko zerga neurriak onestekoa. \(2022-04-06 Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA\).](#)
- [1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena \(2023-01-23 Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA\).](#)

[1/2022 FORU ARAUA, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena.](#)

14. artikulua. Ondare-sozietateen kontzeptua

Ondasun higiezinak jarduera ekonomikoei atxikitako ondasuntzat hartuko dira, haien gaineko eskubide errealak lagatzen edo eratzen direnean, langilerik izan ez arren, eragiketa horiek honako hauen alde eratu direnean:

- 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo entitate lotuen artean
- Talde bateko pertsona edo entitateen artean

23. artikulua. Ondare-elementuen balio-narriaduraren ondoriozko galera: balio-galera.

23. artikuluko 1. apartatuko lehenengo paragrafoaren idazkera ordeztu da. "Araututako merkatu" terminoaren ordez "bigarren mailako merkatu antolatua" terminoa jarri da.

24. artikulua. Finantza-merkataritzako funtsaren zerga-tratamendua.

24. artikuluko 4. apartatuko lehenengo lerrokadaren idazkera ordeztu da. "Araututako merkatu" terminoaren ordez "bigarren mailako merkatu antolatua" terminoa jarri da.

31. artikulua. Gastu kenezinak.

31. artikulua 1. apartatuaren j) letrari edukia ematen zaio. Ez dira zergetatik ken litezkeen gastutzat hartuko, kapital-arriskuko sozietate eta mikroenpresa, enpresa txikia eta enpresa

ertainaren arteko finantzaketa kontratuetatik eratorritakoak, foru arauaren 77. artikuluko 10. apartatuan aurreikusitako moduan eta baldintzetan.

40. artikulua. Balorazio-arauak: arau nagusia eta arau bereziak kostu gabeko eskualdaketetan eta sozietate eragiketetan.

40. artikulua 4. apartatuaren idazkera ordeztu da. "Partaidetzaren kontabilitateko balioa" terminoaren ordeztu, "partaidetzaren balio fiskala" terminoa jarri da.

51. artikulua. Enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa.

Artikulu honen 1. eta 5. apartatuen idazkera ordeztu da. Zerga-oinarriaren zenbateko kengarria aurreko ekitaldiarekiko zerga-ondorioetarako ondare garbiaren gehikuntzaren % 10etik % 15era igaroko da. Mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan (13. artikulua), zenbateko kengarria % 14tik % 20ra igaroko da (ehuneko 5 puntu igo da 1. idatz-zatiaren ehuneko).

52. artikulua. Mozkinak nibelatzeko erreserba berezia.

52. artikulua 1. eta 2. apartatuen idazkera aldatzea:

- Erreserbaren saldoaren muga 5 puntu handitu da zerga ondorioetarako ondare garbiarekiko. Horrela, ohiko muga % 20tik % 25era igotzen da, eta mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan (NFISren 13. artikulua), muga % 25etik % 30era igotzen da.
- Erreserba aplikatzeko epea 5 urtetik 10 urtera handitzen da.
- Epe horretan aplikatu ez diren erreserbako zuzkiduren kasuan, zuzkidura positiboaren zenbatekoa % 10etik % 30era igotzen da.

59. artikulua. Kuota efektiboa eta gutxienez ordaindu beharrekoa.

Artikulu honen 3. apartatuaren idazkera aldatzea. Foru Arauaren 62tik 64ra bitarteko artikuluetan aipatzen diren kenkariak bezala, 65. artikuluan ezarritako kenkaria (Garapen iraunkorra eta ingurumena) ez da kontuan hartzen kalkulua egiteko.

62. artikulua. Ikerketa eta garapen jardueren ziozko kenkaria.

62. artikuluko 2. puntuko d) hizkiaren idazkera aldatzea. "Software" aurreratuaren definizioa egokitzen da. Era berean, d) hizki honetan aurreikusitako kontzeptutik kanpo uzten ditu aurrerapen zientifiko edo teknologiko esanguratsurik izan gabeko "software"aren erabilera berriak, eta "software"aren mantentzearekin edo eguneratzeekin lotutako ohiko jarduerak.

63. artikulua. Berrikuntza teknologikorako jarduerengatiko kenkaria.

63. artikuluko 2. apartatua jasotako berrikuntza teknologikoaren definizioa aldatu da. Era berean, kenkari-oinarriari dagokionez, artikulu bereko 3. apartatuko b), c) eta d) hizkietan jasotako kontzeptuak aldatzen dira.

64. artikulua. Ikerketa eta garapenaren eta berrikuntza teknologikoaren kontzeptutik kanpo gelditzen direnak, eta kenkariak interpretatzeko eta aplikatzeko arauak.

64. artikuluan 2. apartatu berri bat erantsi da, 62. eta 63. artikuluetan aipatzen diren kenkarien (I+G eta berrikuntza teknologikoa) barruan ez dauden gastu batzuk zerrendatzen dituena. Hauek dira kanpoan utzitako gastuak:

- a) Bidaia, dieta, egonaldi eta joan-etorri gastuak.
- b) Prestakuntza gastuak.
- c) Proiektuen dokumentazio gastuak.
- d) Proiektuaren Kudeaketa eta ziurtapenarekin lotutako aholkularitza eta ziurtapen gastuak.
- e) Administrazio gastuak eta bulegoko materialak sortutakoak.
- f) Proiektuari jasanarazitako enpresa gastu orokorrak, eta, oro har, ikerketa eta garapen jarduerekin edo berrikuntza arloekin zuzenean lotuta ez daudenak, baldin eta jarduera horiek egiteko aplikatzen badira.

66. artikulua. Enplegua sortzeagatiko kenkaria.

66. artikulua 1. apartatua aldatzen da, hau da, kontratatutako langile bakoitzeko kenkaria, 7.000 euroko zenbateko finkoa izatera igarotzen da (orain arte, urteko soldata gordinaren %25a, 5.000 euroko mugarekin). Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzat, muga hori 14.000 eurokoa izango da.

67. artikulua. Kapitulu honetan ezarritako kenkariei buruzko arau orokorrak.

67. artikulua 1. eta 7. apartatuak aldatu dira. Kuota likidoaren gaineko % 50eko muga berri bat ezarri da 65. artikuluan ezarritako kenkarirako (Garapen jasangarria, ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntza eta energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorra helburu duten proiektuei lotutako inbertsio eta gastuengatiko kenkaria).

Kenkariak batera gertatzen badira, ordena honetan aplikatuko dira, eta multzo bakoitzaren barruan, lehendabizi aurreko ekitaldietan sortutakoak:

1. % 35eko muga aplikatzen zaien kenkariak aplikatzen dira (gainerako kenkariak) .
2. % 70eko muga aplikatzen zaien kenkariak aplikatzen dira (62 eta 63) .
- 3.- % 50eko muga aplikatzen zaien kenkariak aplikatzen dira (65) .

77. artikulua. Kapital-arriskuko sozietate eta funtsak.

Artikulu honen 1. apartatuaren idazkera berria.

Gainera, atal berri bat gehitu zaio artikulu honi, kapital-arriskuko sozietateen eta mikroenpresa, enpresa txikia edo ertainen arteko finantzaketa-kontratuei buruzkoa. Honen arabera, ez dira zerga-oinarrian sartzen aipatutako finantzaketa-kontratuetatik datozen errentak, zati batean dirutan ordaindutakoak eta beste batean gauzatan ordaindutakoak (akzioak edo partaidetzak erosteko eskubideak), betiere, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Mikroenpresa, enpresa txikia edo ertaina izatea kontratua formalizatzean (13. artikulua).

- Akzioak erosteko eskubidea baliatzeak ezin du kapital sozialaren % 25eko edo gehiagoko partaidetza ekarri.
- Kontratua indarrean dagoen bitartean alderdien arteko loturarik ez izatea (Foru Araueko 42. artikulua).
- Ogasun eta Finantza Sailari jakinaraztea (aukera edo uko egitea), ondorioak izan behar dituen lehen zergaldia amaitu baino lehen.

Ez-betetzereen bat gertatuz gero, kontratuaren indarraldian sartu gabeko zenbatekoak zerga-oinarrian sartu beharko dira, zenbateko honen % 100 gehituta.

89. artikulua. Zerga-taldearen zerga-oinarriaren zehaztapena.

Artikulu honen 5. eta 6. apartatuak aldatzen dira, baina, horrez gain, beste apartatu bat gehitzen da. Aldaketei dagokienez, talde fiskal batean integratu aurretik, entitateek zerga-oinarrian gehitzeke dauden kopuruak (51. eta 52. artikulua) edo kendu ez dituzten zenbatekoak badituzte (52. artikulua), talde fiskalak zerga oinarritik murriztu ahal izango ditu zenbateko horiek, entitateak zergaldian lortzen duen zerga oinarri positibo indibidualaren mugarekin, betiere entitate horri dagozkion ezabapenak eta txertaketak kontuan hartuta.

Bestalde, apartatu berriaren arabera, talde fiskaleko kide izateari uzten dion entitate baten partaidetza eskualdatzean sortutako errenta negatiboen zenbatekoa murriztu egingo da eskualdatutako entitateak talde fiskalaren barruan sortu dituen zerga oinarri negatiboek dagokien zatitik, bertan konpentsatuak izan badira.

92. artikulua. Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa.

Artikulu honen 2. apartatua aldatzen da. Zerga-oinarri indibidualaren muga kalkulatzeko, kontuan hartuko dira erakunde horri dagozkion ezabaketak eta txertaketak (taldearen zerga-oinarriaren konpentsazioak).

96. artikulua. Zerga-taldearen kuota osoan aplikatu daitezkeen kenkariak.

Artikulu honen 2. apartatua aldatzen da. Entitate horri araubide indibidualean legokiokeen muga kalkulatzeko, entitate horri dagozkion ezabaketak eta txertaketak hartuko dira kontuan (talde fiskalaren kuota osoaren kenkariak).

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Kultura sustatzeko pizgarriak.

- Hamabosgarren xedapen gehigarriaren (Espainiako ekoizpenak) 1. apartatuaren 1. eta 4. zenbakiak aldatzen dira. Kenkariaren ehunekoak % 30etik % 35era igotzen dira oro har, eta % 40tik % 45era euskaraz filmatutako obretan. Kenkariaren zenbatekoaren muga 2,5 milioi eurotik 10 milioi eurora igo da ekoizpen bakoitzeko.

- Hamabosgarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoaren 1., 3., 4. eta 5. zenbakien idazkera berria (Atzerriko ekoizpenak). Kenkariaren ehunekoa % 25etik % 35era igo da, sorkuntza arloko langileen gastuei dagokien muga 50.000 eurotik 100.000 eurora igo da, eta kenkariaren zenbatekoaren muga ekoizpen bakoitzeko 2,5 milioi eurotik 10 milioi eurora igo da.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. 100eko 35eko muga orokorra kuota likidoaren kenkarietan.

Zerga araudian jasota dauden kenkarietarako arau honen 67. artikulua aplikagarri bazaie, 100eko 35eko muga orokorra izango dute, espresuki besterik esaten denean salbu.

Hogeita zortzigarren xedapen iragankorra. Garapen jasagarria, ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntza eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorrago bultzatzeko proiektuekin lotuta 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenago egindako inbertsio eta gastuen kenkaria.

Araubide iragankor bat ezartzen da: aplikatzeko dauden aurreko ekitaldietako kenkarietarako aurreko erregulazioarekin jarraituko dute.

Hogeita bederatzigarrena xedapen iragankorra. Sozietateen gaineko zergaren karga tasa orokorra aplikatzen ez duten kapital aldakorreko inbertsio sozietate jakin batzuk desegin eta likidatzea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan ezarritakoaren arabera desegin eta likidatzen diren kapital aldakorreko inbertsio sozietateetako bazkideek honako zerga araubide hau izango dute:

a) Salbuetsita egongo dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan.

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako, likidazioan dagoen sozietateko bazkideek ez dituzte sartuko zerga oinarrian entitatearen likidaziotik ondorioztatzen diren errentak, baldin eta likidazioaren kuota gisa dagokien dirua edo ondasun multzoa inbertsio kolektiboko erakunderen batean akzioak edo partaidetzak eskuratu edo harpidetzeko berrinbertitzen bada.

[1/2022 Foru Dekretu-Araua, apirilaren 5ekoa, eguneko krisi energetikoa, prezioen gorakada eta Ukrainaren inbasioa izaten ari diren inpaktu ekonomikoa arintzeko premiazko zerga neurriak onestekoa.](#)

Aparteko amortizazio askatasuna.

Ibilgetu material berriko elementuak (kanpoan utzita eraikinak eta garraiobideak), 2022. urtean zehar eskuratzen badira, askatasunez amortizatu ahal izango dira funtzionatzen hasten direnetik aurrera eta haien balio bizitzan zehar. Barruan sartuta geratzen dira enpresak berak eraikitako ibilgetu materialeko elementuak eta 2022an zehar sinatutako obra exekuzioko kontratu baten ondorioz agindutakoak, betiere kontratua amaitu eta hurrengo hamabi hilabeteen barruan jartzen badira eskura.

Sorrera berriko entitate berritzaileek egindako ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea (64 bis 2.d artikulua).

Sorrera berriko entitate berritzaileek egindako ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuak finantzatzeko 2022 ekitaldian hasi dituzten kontratuen formalizazioa, baldin eta kontratu horiek 64 bis artikulua 2. apartatuko d) letran aipatutako finantzaketa kontratuak badira, proiektuak gauzatzen hasi aurretik egin beharko da, nahiz eta, era berean, hura gauzatzen den lehendabiziko bederatzi hilabeteen barruan egin ahal izango den, betiere txostena eskatu bada, proiektua gauzatzen hasi aurretik, eta aitortzeko borondatezko epea amaitu ez bada.

Artikulu horretan jasotakoa aplikagarri izango zaie ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko urte anitzeko proiektuei, baldin eta haiek finantzaketa kontratua sinatu aurretik gauzatzen hasi badira, betiere kontratu hori 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiaren lehendabiziko bederatzi hilabeteetan sinatzen denean.

Martxan dauden finantzaketa kontratuak aldatu ahal izango dira ordainketa eta gastuen egutegia eta inbertsioen egutegia berregokitzeko. Aldaketa horren berri emango zaio Zerga Administrazioari, komunikazio osagarri baten bidez, hura formalizatzen denetik hiru hilabete epean eta, nolana ere, abenduaren 31ren aurretik. Aparteko izaeraz, zilegi izango da jadanik formalizatutako kontratuetan parte hartzen duen zergadunaren posizioan subrogatzea, baldin eta subrogazio hori 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiaren lehendabiziko bederatzi hilabeteetan sinatzen denean.

1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen

Bosgarren xedapen gehigarria. 2022ko zergaldian mikroen presek zergaldian sozietateen gaineko zergan aplikatu dezaketen zerga konpentsazioa.

Foru Arauaren 32. artikuluko 4. apartatuan ezarritakoaren arabera, mikroenpresek beren tamainak dakartzan zailtasunengatik zerga oinarrian konpentsazio gisa aplika dezaketen gutxipen portzentajea 100eko 15 izango da 2022ko zergaldirako.